

Tutoretza plana

1.- Helburua

Tutoretza planaren helburua da sistematizatzea ikasleek prestakuntza akademikoa osatzeko behar dituzten gaitasunak eta trebetasunak garatzera bideratutako ekintzen multzoa.

2.- Aurrekariak

2014/2015 ikasturtean tutoretza programa bat aurkeztu zen, erreferentziazko hainbat irakasleren parte hartzean oinarritua. Irakasle horiek ikasle batzuk zituzten esleituta, zeintzuek programarekiko interesa agertu zuten alde aurretik, beren borondatez. Horrela, zazpi informazio saio programatu ziren, urtean zehar landuko ziren gaiei buruzkoak. Horien helburua zen ikasleek ikasketak ez uztea eta, uzten zituztenen kasuan, arrazoiak jakitea.

2028/2019 ikasturtean Berdinen arteko Tutoretza Programa jarri zen abian Gasteizko Ingeniaritza Eskolan. UPV/EHUK definitutako plan horren bidez eratu nahi zen azken mailetako ikasleen talde bat, erreferentzia izango zena lehen mailako ikasleentzat. Programa hiru ikasturtean egon zen indarrean. Lehenengo urtean zortzi ikaslek osatutako taldea egon zen, baina bigarrean bi ikasle baino ez ziren egon. Datu hori kontuan hartuta, bai eta lehen mailako ikasle gutxi hartu zutela parte proposatutako jardueretan eta pandemiaren eragina, programa baztertuta geratu zen 2020/2021 ikasturtean.

Dokumentu honetan jasotzen dira gaur egun Ingeniaritza Eskolan egiten diren ekintzak ikasleen prestakuntza akademikoa osatzeko. Ekintza horien oinarria da lehenengo tutoretza plana, ikasleentzat interesgarriak izan zitezkeen prestakuntza saioak eskaintzen zituena.

3.- Eremuak

- Akademikoa: ikasketa planari, baliozkotzei eta abarri buruzko informazioa.
- Kudeaketa: unibertsitate bizitzaren kudeaketarako organoak
- Administratiboa: ikastegiaren eta UPV/EHUren baliabide, kanal eta bitartekoetarako sarrera.
- Zerbitzuak: ikasleen garapen akademikoarekin zerikusia daukaten zerbitzuak.

4.- Ekintzak

EKINTZA	JARDUERA	NORI ZUZENDUA	EDUKIAK	NOIZ	ARDURADUNAK	EBALUAZIOA
Matrikula	Automatrikularako laguntza	Ikasleak	Irizpideak Ordainketa Baliozkotzeak	Uztaila Urtarrila	- TEKAZEL - Idazkaritza	
Harrera	Ongietorria	Lehen mailako ikasleak	Beste ikasle batzuen esperientzia	Iraila	- Lehen mailatik gorako ikasleak - Zuzendaritza	2.1.4.R1
Harrera	Lehenengo urratsak	Lehen mailako ikasleak	Posta Ordutegiak Azterketak Arautegia Irakaskuntza gidak Tutoretzak Mugikortasuna Hizkuntzak Ikasgela birtualak Biblioteka	Iraila	- Zuzendaritza - Lehen mailatik gorako ikasleak	2.1.4.R1
Kanpoko praktiketarako orientazioa (curriculumetik kanpokoak)	Motibazioa eta programaren aurkezpena	Azken mailako ikasleak	Epeak Arautegia	Iraila Abendua	- Enpresarekiko Harremanetako zuzendariordea	
Kanpoko praktiketarako orientazioa (curriculumekoak)	Motibazioa eta programaren aurkezpena	Automobilgintzaren Ingeniaritzako Graduako 2. mailako ikasleak	Epeak Arautegia	Urtarrila Maiatza Uztaila	- Enpresarekiko Harremanetako zuzendariordea	Kanpoko praktiketarako orientazioa (curriculumekoak)
Mugikortasun programetarako orientazioa	Motibazioa eta programaren aurkezpena	Ikasle guztiak	Epeak Arautegiak Tokiak	Urria	- Nazioarteko Harremanetako zuzendariordea	Hobekuntza puntuak informazioko inkestan
Tutoretza	Orientazioa	Ikasle guztiak	Rontsultei erantzutea	Ikasturte osoa	- Irakasleak	Ikasleen gogobetetze inkesta
Enplegurako orientazioa	Enplegu azokak Lan poltsa	Azken mailako ikasleak Graduatu berriak	CV egitea Kanpoko profesionalak	Ikasturte osoa	- Enpresarekiko Harremanetako zuzendariordea - Profesionalak	

<u>Errendimendu handiko kirolarien tutoretza</u>	Orientazio akademikoa	Errendimendu handiko kirolariak	Aipatutako ikasleen eta beren tutoreen eskubideak eta betebeharrak	Ikasturte osoa	- Akademia Antolakuntzako zuzendariordea	
<u>Premia bereziak dituzten ikasleen tutoretza</u>	Arreta eta laguntza	Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak	Aipatutako ikasleen eta beren tutoreen eskubideak eta betebeharrak	Ikasturte osoa	- Akademia Antolakuntzako zuzendariordea	
<u>Entzute eta Erantzute Sarea</u>	Orientazioa (<u>harremanetarako</u>)	Premia ekonomiko, sozial edo psikologikoak dituzten ikasleak	UPV/EHUren laguntza programak	Ikasturte osoa	- Entzute eta Erantzute Sareko IRIak	